

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

GENIUS LENS enpresa garen horretan, bezeroekin harreman estu bat izan nahi dugu. Halere erosoago egingo zaigulakoan, zerbitzu automatizatu bat emango dugu; horrela, bezeroek webgune baten haien eskabideak egin ditzaten denda fisiko batera joan behar izan gabe. Bertan galdera edo eskari desberdinak egiteko aukera edukiko dute; izan ere, guk galderak argituko ditugu. Gure bezeroak proposamenari lotze aldera pertsonalizatzeko aukera emango dugu; basoak bakoitzaren gustuetara egoki daitezen. Halere ez diogu uko egingo pertsonalizatutako arretari; izan ere, guk argitzen baititugu gure bezeroen zalantza guztiak. Bestalde, beste harreman mota bat sor daiteke gure enpresa eta merkatu segmentu baten artean.



Batetik, dedikatutako laguntza pertsonala, adibidez, bezero jakin batzuekin laguntza zehatz bat izango dugu, onurak ekartzen baitizkigu, esaterako tabernari edota udaletxea eta gure arteko erlazioa. Bestetik, automatizatutako zerbitzua erabiliko dugu, bezero indibidualek, demagun herritarrek, webgunearen bitartez produktua erosi ahal izango dute; horretarako, erosketa prozesu guztia erraztuko diegu ahalik eta errazen zein azkarren egin ahal izateko eskaera.

Denda fisikoa ez edukitzearen arrazoi nagusia erosotasuna da. Azkenean, bezeroentzat erosoago suerta liteke haien etxetik zein lanetik nahi adinako eskaera egin dezakete. Bestalde, guretzat ere erosoagoa da webgune baten bitartez gure produktua saltzea, bezero konkretu bat ez dugunez (hau da, herritarrak, tabernariak, udaletxeko ordezkariak dira, batik bat) hauei banatzeko errazagoa izango zaizu, kontuan izanda hasiera batean posta bidez entregatuko diegula, gure enpresaren gastuak murrizte aldera.

Gainera, webgunea edukitzeaz gain, gure produktua beste dendetan salgai jartzea adostu dugu. Beraz, enpresa gisa ez dugu denda fisiko propio bat edukiko, baina bezeroek festei buruzko edo edalontziak saltzen diren dendetan eskuragarri izango dute. Aipagarria da halere, dendetan salduko diren edalontzien diseinua bezero indibidualentzat zuzenduta egongo da; hau da, tabernari bat edota udaletxetik edalontziak nahi izanez gero webgunera joan beharko lukete haien beharrei zuzenduta dagoen eskaerari erantzuteko.



Amaitzeko, hasieran azaldu bezala, bezeroekin harreman estu hori mantentze aldera, bezeroei arretarako zerbitzu pertsonalizatu bat eskainiko diegu. Adibide bat jarri nahi aldera, tabernariak edalontziaren diseinu pertsonalizatu bat nahi du baina zalantzak ditu ipini nahi duen irudiaren inguruan.